



EBAZPENA, 2020KO OTSAILAREN 14KOA, HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, ARTE DRAMATIKOKO GOI-MAILAKO ARTE-IRAKASKUNTZAK EGITEKO SARBIDE-PROBARAKO DEIA EGITEN DA, 2020. URTEKO PROBA ANTOLATU, GARATU ETA EBALUATZEKO BEHARREZKO ARGIBIDEAK EMATEN DIRA ETA 2020-2021 IKASTURTERAKO IKASLEAK ONARTZEKO PROZEDURA EZARTZEN DA.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 54., 55., 56. eta 57. artikuluetan ezartzen duenez, goi-mailako arte-irakaskuntzak egiteko, beharrezkoa da batxilergo-titulua edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gaindituta izatea, bai eta dagokion sarbide-proba espezifikoa gainditzea ere. Hori bera jasota dago Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duen urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan.

Bestalde, lege organiko horrek 69.5 artikuluan ezartzen duenez, hemezortzi urtetik gorakoek, batxilergo-titulua dutela edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu dutela egiaztatzen ez badute ere, goi-mailako arte-irakaskuntzak egin ahalko dituzte; horretarako, proba bat gainditu beharko dute. Proba hori hezkuntza-administrazioek arautu eta antolatuko dute, eta haren bidez egiaztatuko da izangaia behar bezain heldua dela, Batxilergoko helburuei dagokienez eta dagokion ikasketak probetxuz egiteko ezagutzari, abileziei eta gaitasunei dagokienez. Izangaiek, horretaz gainera, ikasketa horietako bakoitzerako sarbide-proba espezifikoa gainditu beharko dute.

Urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako goi-mailako irakaskuntzak antolatu zituenak, 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Arte Dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarritzko edukia arautu zuen maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretua argitaratu zen.

Errege Dekretu horren 5. artikuluan araberak, izangaiek ikasketa horiek probetxuz egiteko dituzten heldutasuna, ezagutzak eta gaitasunak balioestea da irakaskuntza horietan sartzeko egin beharreko sarbide-proba espezifikoaren helburua; eta hezkuntza-administrazioei eskatzen zaie proba horretarako deialdia egiteko, eta proba hori antolatu, garatu eta ebaluatzeke. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Xedea eta aplikazio-eremua.

Ebazpen honen xedea da 2020-2021 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoan Arte dramatikoko goi-mailako irakaskuntzak egiteko sarbide-proba espezifikoaren deialdia egitea eta hura arautzea, bai eta ikasleak onartzeko irizpideak ezartzea ere.

Bigarrena.- Probaren helburua eta ondorioak.

1. Goi-mailako irakaskuntza horietara sartzeko probaren helburua da izangaiek ikasketa horiek probetxuz egiteko behar adina heldutasun, ezagutza eta gaitasun badituzten balioestea.

2. Proba gainditzeak aukera emango du ikasketa horiek irakasten dituen estatuko edozein ikastetxetan sartzeko, betiere, ikastetxe horietan plaza libreak baldin badaude.



3. Probak dagokion ikasturterako bakarrik balio du.

Hirugarrena.- Ikasleek proba egiteko bete beharreko baldintzak.

Baldintza hauetakoren bat betetzen duten ikasleek egin ahalko dute Arte dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko proba espezifikoa:

- 1.- Batxiler-titulua izatea.
- 2.- Hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- 3.- Goi-mailako arte-irakaskuntzetan sartzeko baldintza akademikoen ordezkotako heldutasun-proba edo lanbide-heziketako goi-mailako heziketa-zikloak egiteko sarbide-probaren atal komuna gainditu izana.

Laugarrena.- 2020ko proba egiteko izena ematea: prezio publikoak, ikastetxea eta epeak.

1. Izena emateko epea: apirilaren 20tik maiatzaren 22ra arte.
2. Izena emateko prozedura: "Dantzerti" ikastetxeak probetan izena emateko epea hasi aurretik bere webgunean finkatutakoa.
3. Agiriak nora eraman: "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskola.
Helbidea: Ibarrekolanda plaza, 48015 Bilbao. Tel.: 946 57 06 00

4. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko maiatzaren 16ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak ezartzen dituen Agindua hirugarrenez aldatzekoak, xedatutakoaren arabera, deialdi honetan parte hartzen duten izangaiek 28,02 € ordaindu behar dituzte sarbide-probaren prezio publiko gisa.

5. Arte dramatikoko irakaskuntzak egin nahi dituzten ikasle guztiek I. eranskinetako ereduaren arabera bete beharko dute izena emateko eskabidea.

6. Maiatzaren 27an "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren webgunean argitaratuko da proba egiteko izena emandako pertsona onartuen zerrenda, eta, hala badagokio, baztertuen zerrenda ere bai, baztertuta geratzeko arrazoiak adierazita. Akatsak zuzentzeko epea argitaratze-egunetik maiatzaren 29ra arte (egun hori barne) egongo da irekita.

Bosgarrena.- Sarbide-probaren egitura.

Arte dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzetako Interpretazioaren espezialitatea egiteko sarbide-proba espezifikoa bi zati izango ditu:

1. zatia:

A ariketa:

Testu dramatikoen azterketa izango da.

Aldez aurretik jakinaraziko dira errepertorioa osatzen duten obra dramatikoen izenburuak, eta epaimahaiak haiei buruzko hainbat galdera erantzuteko eta haien analisisa egiteko eskatuko die izangaiei.



Izangaiaren heldutasuna eta ezagutza balioetsiko dira, eta, horretarako, kontuan hartuko da izangaiak kontzeptuak ulertzen dituen, zer-nolako hizkuntza erabiltzen duen, loturak egiteko eta laburbiltzeko gaitasuna duen, eta ematen dituen erantzunak egokiak diren.

Ariketa hori egiteko, izangaiak 60 min izango dituzte gehienez.

Izangaiak idatzizko proba euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango dute, eta beraien aukera eskabide-orrian adieraziko dute.

B ariketa:

Sormen-idazketaren ariketa: Hautagaiek epaimahaiak proposatutako ikus-entzunezko proiektio bat bistaratuko dute, eta haren inguruan sormenezko testu bat sortuko dute.

Epaimahaiak honako hauek balioetsiko ditu: sortzeko gaitasuna, proposamenaren originaltasuna, proiektioaren eta proposamen idatziaren arteko egokitasuna eta koherentzia, kalitate artistiko-literarioa eta hautagaiek aurkeztutako testuaren sintesi-gaitasuna.

Ariketa hori egiteko, izangaiak 15 min izango dituzte gehienez.

Izangaiak idatzizko proba euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango dute, eta beraien aukera eskabide-orrian adieraziko dute.

2. zatia:

Hiru ariketa praktiko egingo dituzte (A, B, C), eta, horien bidez, gaitasun artistikoak balioetsiko dira, kontuan hartuta izangaien gorputz- ahots- eta interpretazio-gaitasunak.

A ariketa:

Izangaiak, denek batera edo taldeetan banatuta, mugimendu eta gorputzeko ariketa praktiko bat egingo dute, epaimahaikide baten zuzendaritzapean edo epaimahaikideek izendatutako aditu baten zuzendaritzapean. Hau guztia balioetsiko da: gorputz-adierazkortasuna eta -plastika, mugimendua espazioan eta denboran, energia eta kontzentrazioa.

Ariketa hori egiteko, izangaiak 90 min izango dute gehienez.

B ariketa:

Izangai bakoitzak B ariketako atal guztiak egin beharko ditu:

B.1 Izangaiak berak aukeratutako abesti melodiko bat abestuko du euskaraz, gaztelaniaz edo Europar Batasuneko edozein hizkuntza ofizialetan oinarri melodiko batez lagunduta, eta probak egin baino 10 egun lehenago, aukeratutako abestiaren oinarri melodikoa aurkeztuko du formatu digitalean.

Epaimahaiak alderdi hauek balioetsiko ditu: intonazioa, erritmoa, afinazioa eta ahoskera.

B.2. Izangaiak poema baten dramatizazioa aurkeztuko du. Poema nahiz dramatizazio-proposamena izangaiak berak eramango ditu.



Izangaiak probak egin baino 10 egun lehenago, aukeratutako poemaren testua eramango du formatu digitalean.

Epaimahaiak alderdi hauek balioetsiko ditu: dramatizazio-proposamenaren sakontasuna eta egokitasuna, intonazioa, erritmoa, ahoskera eta adierazkortasuna.

B.3. Izangaiak epaimahaikideek proba egiterakoan emango dioten testu bat ozen irakurtzea.

Epaimahaiak alderdi hauek balioetsiko ditu: intonazioa, erritmoa, adierazkortasuna eta ahoskera.

Epaimahaiak egokitzat jotzen dituen nahi beste ariketa proposatuko ditu, izangaia hobeto ebaluatzeko. Halaber, epaimahaiak ariketetako bakoitza eten edo amaitutzat jo ahalko du, egoki deritzon. Horretaz gainera, epaimahaiak egokitzat jotzen dituen galderak egin ahalko ditu, izangaia hobeto ebaluatu ahal izateko.

C ariketa:

Izangai bakoitzak epaimahaiak proposatutako bakarrizketetako bat interpretatuko du. Hau guztia balioetsiko da: antzespen-proposamenaren sakontasuna, egokitasuna eta koherentzia, jarrera eta presentzia eszenikoa, kontzentrazioa, gorputzaren, ahotsa eta testuaren arteko lotura.

Epaimahaiak euskarazko 2 testu eta gaztelaniazko 2 testu proposatuko ditu, eta bai euskarazko bai gaztelaniazko testuetatik bi emakumezkoenak izango dira eta beste bi gizonezkoenak. Testuok "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren webgunean argitaratuko da, izena emateko aldi.

Epaimahaiak egindako lanei eta/edo bere itxaropenei buruzko galderak egin ahal izango dizkio izangaiari.

B eta C ariketak egiteko, izangaiek 19 minutu izango dituzte gehienez. Izangaiak erabakiko du zer ordenatan egin ariketak. Izangaiak aurkezten edo egiten ez badu probako ariketetako bat, ezingo du hurrengoetan parte hartu, eta ez zaizkio zuzenduko aurretik egindako probak.

II. eranskinean agertzen da probaren egitura, bai eta zati bakoitzari dagokion puntuazioa ere.

Seigarrena.- Sarbide-proba kalifikatzea.

1. Sarbide-proba espezifikoa gainditzeko, ezinbestekoa da bi zatiak gainditzea. Lehenengo zatian 10 puntu edo gehiago eta bigarrenean 40 edo gehiago lortu dituzten izangaien behin betiko puntuazioa baino ez da jasoko.

2. Amaierako kalifikazioa zenbakitan adieraziko da, eta, horretarako, batetik ehunera bitarteko eskala erabiliko da, dezimal batekin. Dezimal hori gertueneko hamarrenera biribilduko da eta distantzia berean badago, handienera.

Zazpigarrena.- Sarbide-proba espezifikoaren epaimahaia.

1. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako arduradunak izendatuko du proba ebaluatzeko epaimahaia, eta epaimahaiburua eta hiru epaimahaikide izango ditu gutxienez.

2. Epaimahaiak egoki deritzen aholkularien laguntza eskatu ahal izango du.



3. Honako hauek dira epaimahaiaren egitekoak:

- a) Euskal Autonomia Erkidego osorako bakarrak izango diren probak prestatzeko eta egiteko prozesua antolatzea.
- b) Ebaluazio-saioak antolatzea eta aktak egitea.
- c) Aurkezten diren erreklamazioak ebaztea.
- d) Sarbide-probak behar bezala egiten direla eta indarrean den araudia betetzen dela zaintzea.

Zortzigarrena.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek proba egiteko denbora eta bitarteko materialak egokitzeko eska dezakete, gainerako izangaien aukera berak izan ditzaten.
2. Pertsona horiek hezkuntza-premia bereziak dituztela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.

Bederatzigarrena.- Proba egitea.

1. Arte dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzak egiteko sarbide-proba espezifikoak ekainaren 15etik 19ra bitartean egingo dira. Data zehatzak, gutxienez, proba-egunak baino hamar egun lehenago jakinaraziko dira "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Eskolaren webgunean.
2. Probak "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolan egingo dira.
3. Epaimahaiak horrela erabakiko balu, jarraibide gehigarrien bidez, aurreko puntuei buruzko argibide gehiago eman ahal izango ditu "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren iragarki-taulan edo webgunean.
4. Izangaiak NAN, AIZ edo nortasuna egiaztatzen duen beste agiri ofizial bat aurkeztu beharko dute probak egin ahal izateko. Horrez gain, bereiek eraman beharko dituzte probako ariketak egiteko beharrezkoak diren tresnak.

Hamargarrena.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak egitea.

1. Behin-behineko kalifikazioak "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren webgunean argitaratuko dira, proba egin eta bi egun balioduneko epean.
2. Behin-behineko emaitzak argitaratu eta bi egun balioduneko epean egin dezake ikasleak proban ateratako kalifikazioaren erreklamazioa egin ahalko du. Erreklamazioa epaimahaiburuari egin beharko dio, eta behin betiko kalifikazioak onartzearekin batera ebatziko da.
3. Behin betiko kalifikazioak behin-behineko kalifikazioak argitaratu eta gehienez ere astebetera argitaratuko dira.
4. Behin betiko kalifikazioaren kontra, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzako arduradunari, kalifikazioa argitaratu eta hilabeteko epean.



Hamaikagarrena.- Probaren ziurtagiria.

Proba gainditu duen ikasleak ziurtagiri bat eskatu ahal izango du proba egin duen ikastetxean. Ez zaie ziurtagiririk emango proba guztiz gainditu ez duten izangaietara, ez ziurtagiri partzialik, ez eta ariketen kalifikazio-ziurtagiririk ere.

Hamabigarrena.- Dokumentazioa gordetzea.

Probak egitean sortutako dokumentazioa ikastetxean gordeko da, probak amaitu eta hiru hilabeteko epean.

Hamahirugarrena.- Deitutako plazen kopurua eta plazak esleitzeko modua.

1. 2020-2021 deialdian, eta martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuaren 26. artikuluan ezarritako ratioen arabera, administrazio akademikoak sarbide-probetarako deialdia egiten du Interpretazioaren espezialitateko 15 plaza betetzeko.

2. Ikasleak onartzeko, ezinbestekoa da ikasleak sarbide-proba espezifikoa gainditu izana.

3. Proban lortutako noten arabera esleitu dira plazak, beheranzko hurrenkeran.

4. Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango du sarbide-probako bigarren zatian nota handiena lortzen duen izangaiak. Hala eta guztiz ere berdinketak bere horretan jarraitzen badu, lehentasuna izango du sarbide-proba egiteko egiaztatutako baldintza akademikoan kalifikaziorik onena egiaztatzen duenak, honako lehentasun-hurrenkera honen arabera: Batxilergoko batez besteko nota, hogeita bost urtetik gorakoentzako sarbide-probako kalifikazioa eta hemezortzi urtetik gorakoentzako heldutasun-probako kalifikazioa. Horiek horrela, "Gai" kalifikazioa bostaren parekoa izango da zenbakizko notetan.

5. Matrikulatzeko epea amaitzean plaza libreak geratuz gero, ikastetxe horretan probak gainditu dituzten eskatzaileek izango dute lehentasuna plaza lortzeko, eta plaza horiek proba espezifikotan lortutako ordenaren arabera esleitu dira.

6. Amaitzeko, plaza libreak geratuz gero, beste ikastetxe batean espezialitate bererako sarbide-proba espezifikoa gainditu duten beste eskatzaile batzuei esleitu ahalgo zaizkie.

7. Pertsona Desgaituen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa betez, eskaintako plazen % 3 erreserbatuko dira % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten ikasleentzat, betiere, dagozkien baldintza akademikoak betetzen badituzte eta proba espezifikoa gainditzen badute. Horretarako, desgaitasuna duten ikasleek zer desgaitasun-maila aitortuta duten adierazten duen ziurtagiria erakutsi beharko dute, eskumena duen organoak egina.

8., Goi-mailako eta errendimendu handiko kirolariei buruzko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren 9.4 artikuluan ezarritakoa betetze aldera, plaza huts berrien % 3 erreserbatuko zaie goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatzen duten kirolariei, betiere, dagozkien baldintza akademikoak betetzen badituzte eta sarbide-proba espezifikoa gainditzen badute. Plaza-erreserba hori ikastetxe bakoitzak eskaintzen dituen plaza berrien guztizkoaren arabera kalkulatu da.



9. Ezin izango da plazarik esleitu eskatzaileek sarbide-proba gainditu duten espezialitatea ez den beste batean..

10. Matrikula, "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolan egingo da uztaileko lehenengo hamabostaldian.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 14an.

Lucía Torrealday Berrueco
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA



I. ERANSKINA / ANEXO I

**ARTE DRAMATIKOKO ETA DANTZAKO GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZAK EGITEKO
SARBIDE-PROBAN IZENA EMATEKO ESKABIDEA. 2020-2021 IKASTURTEA /
SOLICITUD DE INSCRIPCIÓN A LA PRUEBA DE ACCESO A LAS ENSEÑANZAS
ARTÍSTICAS SUPERIORES DE ARTE DRAMÁTICO Y DANZA. CURSO 2020-2021**

AUKERATZEN DEN ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD ELEGIDA	
Arte dramatikoko goi-mailako irakaskuntzak / Enseñanzas Superiores de Arte Dramático	
Dantzako goi-mailako irakaskuntzak / Enseñanzas Superiores de Danza	

(Dagokiona aukeratu / Señalar la opción elegida)

KASLEAREN DATUAK / DATOS DEL ALUMNO O ALUMNA					
Abizenak / Apellidos: _____	Izena / Nombre: _____				
Jaioteguna / Fecha de nacimiento: _____	NAN / DNI: _____				
Helbidea / Dirección: _____					
Herria / Población: _____	PK / CP: _____ Lurraldea / Territorio: _____				
Telefono mugikorra / Teléfono móvil: _____ e-posta / e-mail: _____					
Proba zein hizkuntzatan egingo den / Idioma de realización de la prueba:	<table border="0"> <tr> <td>Euskaraz</td> <td>En euskera</td> </tr> <tr> <td>Gaztelaniaz</td> <td>En castellano</td> </tr> </table>	Euskaraz	En euskera	Gaztelaniaz	En castellano
Euskaraz	En euskera				
Gaztelaniaz	En castellano				

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN PRESENTADA
<p>a. Batxiler-titulua / Título de Bachiller</p> <ul style="list-style-type: none"> - Batxilergo Artistikoa (Arte Eszenikoak, Musika eta Dantza) / Bachillerato Artístico (Artes Escénicas, Música y Danza) - Beste Batxilergo batzuk / Otros Bachilleratos <p>b. Tasa ordaindu izanaren jatorrizko frogagiria. Acreditación del abono de tasa (justificante original).</p> <p>c. Ondorio akademikoetarako batxiler-tituluaren baliokidea den beste bat (adierazi zein). Título equivalente al de Bachillerato a efectos académicos (Indica cuál).</p> <p>d. 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba. Prueba de acceso a la Universidad mayores de 25 años.</p> <p>e. Heldutasun-proba edo LHko goi-mailako HHZZetako sarbide-probaren atal komuna. Prueba de madurez o parte común de la prueba de acceso a los CCFF de GS de FP.</p> <p>f. Dantzako irakaskuntza profesionalen titulua. Título de enseñanzas profesionales de danza.</p> <p>g. Duela gutxiko argazki bat (idatzi izena eta bi abizenak atzealdean). Fotografía reciente (con nombre y dos apellidos al dorso).</p>

Tokia eta data / Lugar y fecha: _____

Sinadura / Firma

Datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, eskabide-orka betetzeak esan nahi du interesdunak baimena ematen duela orrian idatzitako datuak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko fitxategi informatizatuetan gordetzeko. Datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak, Lege horretan aurreikusten direnak, Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzan balia daitezke

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal, la cumplimentación de la solicitud implica la autorización de la persona interesada para la incorporación de los datos consignados en ella a los ficheros informatizados del Departamento de Educación del Gobierno Vasco. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la mencionada Ley, se pueden ejercitar ante la Dirección de Innovación Educativa del citado Departamento de Educación.



II. ERANSKINA

ARTE DRAMATIKOKO GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZAK
PROBAREN EGITURA

	ARIKETA		OHARRAK	ARIKETA EGITEKO DENBORA	PUNTUAZIOA
1. ZATIA	1	Testu baten azterketa	Epaimahaiak proposatua	60 minutu gehienez	10 puntu
	2	Sormenezko idazketa		15 minutu gehienez	10 puntu
2. ZATIA	A ARIKETA				
	A	Mugimenduko eta gorputzeko taide- praktika bat egitea	Epaimahaiak izendatutako aditu batek gidatua	90 minutu gehienez	25puntu
	B ARIKETA				
	B1	Abesti melodiko bat interpretatzea	Izangaiak ekarria	3 minutu gehienez	10 puntu
	B2	Poema bat dramatizatzea	Izangaiak ekarria	3 minutu gehienez	10 puntu
	B3	Testu bat irakurtzea	Epaimahaiak proba egiterakoan proposatua	3 minutu gehienez	10 puntu
	C ARIKETA				
C	Bakarrizketa bat interpretatzea (10 minutu gehienez)	Izangaiak Epaimahaiak deialdian proposatutakoen artean bat aukeratuko du	10 minutu gehienez	25 puntu	

Izangaiak aukeratuko du B eta C ariketak zer ordenatan egin.